

noaia

**Hondakinen kudeaketa
plana onartu dute
Batzar Nagusietan**

**Inoizko eskaintzarik
zabalena, Errigoraren
eskutik**

**Martxoaren 8ko greba
iruditan**

**Ilazki Gainza:
“Gizartea matxista da
eta jasotzen ditugun
estimulu gehienak
matxistak dira”**



Betikio Sagardoa




Sagar gazi eta gozoko
aurreneko zuku tantak
jaitsi dira.

TXOTX 2019 Zabalik!

SAIZAR
Sagardotegia

ABANGOARDIA
& TRADIZIOA

Kale Zahar, 39 - 20170 USURBIL (Gipuzkoa) ☎ 943 373 995 - sidrenia@sidrassaiizar.com
www.sidrassaiizar.com   

Turquía

**AZKEN
GELAK!**



NOAOA
BIDAIAK

**BIDAIK
TALDEAN**

943 373 613

IRTEERA EKAINEAN
LASARTE ORIATIK, NOAOAK GIDATUA

info@noaoa.eus **noaoa.eus**

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU



INTZA
ILEA PAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

**UDABERRIARI
BEGIRA
AURPEGI ETA GORPUTZEKO
TRATAMENDUAK**

Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

Albiste iruditan

“Herria suntsitu baino ez dute nahi, berriz ere”

Hugo Chavez Venezuelako presidentea hil eta 5 urte bete ziren egunean, Tadamun elkargune internazionalistak Sutegira ekarri zuen Venezuelaren gaineko ika-mika. Willy Toledo aktore ezaguna eta Agustin Otxotorena enpresaria elkarrekin aritu ziren Venezuelako egoera politikoa aztertzen. Ondorio batera iritsi ziren biak: herria suntsitzea, horixe dela Juan Guaidó eta bere jarraitzaileen helburua.

Agustin Otxotorenen ustez, Venezuelako baliabide naturalak esplotatzeko Ameriketako Estatu Batuen (AEB) saiakera berri bat da azken hilabeteetako egoera politiko nahasia. “Berriz ere Venezuela AEBei saldu nahi diete, aberatsek pobreen kontura negozioa egiten jarraitzeko”, salatu zuen enpresariak.

Hala, arazoaren muina AEBen politikei leporatu zieten eta haien aliatu kapitalistei. “Espainiako politikariak AEBen txakurrak baino ez dira”, baieztatu zu-



Willy Toledo aktorea eta Agustin Otxotorena enpresaria Sutegin izan ziren martxoaren 5ean. Venezuelak bizi duen egoerari buruz jardun zuten Tadamunek antolatutako solasaldian.

ten bi solaskideek. Hala ere, Chavez eta Maduroren gobernuak zer hobetu badutela aitortu zuten, baina Venezuelako estatutak txiroen alde borroka egiten duela

ziurtatu zuten. “20 urtean ezinezkoa da estatua goitik behera aldatu eta hartutako neurri guztiekin asmatzea”, gaineratu zuen Otxotorenak gaia ixteko.

Laburrean

1968an jaiotakoen bazkaria, apirilaren 6an

Apirilaren 6rako antolatutako hitzordurako whatsapp taldea osatu dute. Talde horretan norbait egon ez eta bazkarira animatzen bada deitu 696 411 683 (Bego) edo 666 872 818 (Ana) telefono zenbakietara.

1969an jaiotakoen kinto bazkaria

50. urteurren bazkaria irailean edo urrian ospatuko dute. Eguna eta tokia zehazteke daude baina dagoeneko talde bat hasi da ospakizuna prestatzen. Aurrerago eman- go dituzte xehetasun gehiago.

Aste Santuko txokoak Aginagan

Aste Santutako txokoetan izena emateko epea apirilaren 5era arte egongo da irekia. Txokoen iraupena: apirilaren 15etik 26ra, jaiegunak kenduta. Informazio gehiago: aginaga@eskolatxikiak.org

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noqua.eus // www.noqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldia,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herria!



Garazi Lizaso Manterola

Egunero da martxoak 8

Zirraragarria, polita, hunkigarria, indarberritzeko modukoa, goxoa, ilusioz betea... Eta jarrai nezake martxoaren 8a deskribatzeko hitzen zerrendarekin.

Greba bizitzako eremu guztietan kokatu genuen lanaren kontzeptua eraldatzeko, enplegutik haratago dagoena ere lana delako. Greba feministak bost ardatz zituen jo-puntuan: ikasleak, enplegua, pentsiodunak, kontsumoa eta zaintza. Modu batera edo bestera guztiak ukitzen saiatu ginen eta mamitsua izan zen.

Zoragarria izan zen goizean goizetik emakume* andana frontoira nola gerturatzen zen ikustea. Kaxkotik zehar egin genuen ibilbidetxoak; hamaika adin, errealtate eta

esperientzia desberdinak ditugun emakumeok* borobiletan izan genituen solasaldiak eta hausnarketak; herrian zehar manifestaldi zatatsua; argazki alaia eta, aldi berean, indartsua; tuper-bazkari elkarbanatua; mikrofono irekia poesia, kantu eta dantzekin; akelarrea eta Askatasun Plazako zaintza kolektiboko eremua. Borobil atera zen guzti-guztia.

Eguna euritan hasiatatik ere, eguzkia atera zitzaigun edo aterarazi genion, guztion artean.

Iazko greba feministaren eta mobilizazio masiboen ostean, ia mundu guztia bilakatu zen feminista. Emakumeon* aldarriez jabetzen saiatu dira hainbat alderdi politiko eta enpresa multinazional, nahiz eta euren jardunaren bidez andreon* askatasuna eta eskubideak auzi-

tan jartzen dituzten egunero. Joera hori geldiarazten saiatu gara feministak aurtengo grebari begira. Eskatera politiko zehatzak egin ditugu eta nabarmen utzi dugu feminismoaren izaera antikapitalista, interseksionala eta internazionalista. Bestela esanda, lehen lerroan jarri nahi dugu emakumeon* gehiengoaren ezineginei eta zapalkuntzei erantzungo dien feminismoa. AEBtako mugimenduari jarraiki, %99aren feminismoa.

Aldarrikapenak martxoaren 8an ez ezik, urteko 365 egunetan ere badute lekua. Nork bere inguruan eragin ditzake aldaketak, eman aurrerapausoak. Inurri lanean, pixkanaka, baina etenik gabe. Eten-gabe. Soilik horrela lortuko baititugu goizeko ariketan zenbaitetan aipatu genituen

egoera injustuak justuago bilakatzea, bizitzak bizigarriagoak eta duinak egitea, guztiontzat.

Egunero da martxoak 8, nahiz eta batzuetan nahi baino malkartsuagoa den bidea. Gogoratu, eguna euritan hasiatatik ere, guztion artean, ateraraz dezakegu eguzkia. Elkarrekin konspira dezakegu, ametsi forma eman diezaiekegu eta maldak guztion artean igo ditzakegu. Horregatik, deitu dugu datorren ostegunean, martxoaren 21ean, 18:30tan Potxoenean balorazio bilera irekia, batzeko. Batu gaitezen egun hori antolatzen aritu ginenok, egunean parte hartu genuenok eta bertaratu ezin izan genuenok, guzti-guztiekin dugu lekua eta zeresana bileraren horretan.

Garazi Lizaso Manterola | Itxaso Orbegozo | Aroa Etxeburua Ugartemendia | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Imanol Ubeda

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
IT-a k egiten dira
649 43 54 75
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL



Jone Amonarriz, Gure Esku Dago

Ez da amets bat

Gure Esku Dago amaitzeaz ote den galdetu dio batek baino gehiagok bere buruari dinamikak ziklo bat itxiko duela jakindakoan. Galdera horri gehitu beharko genioke ea GEDek ez bada, zein eragilek bideratuko lituzkeen aurrerantzean erabakitzeako eskubidearen eta burujabetzaren aldeko dinamika herritarrek, era autonomo eta parte-hartzailean; ea nork emango liokeen segida, alor honi dagokionean, milaka herritar aktibatu, antolatu eta elkartu dituen bost urteko ibilbideari eta ea nola iritsiko garen gure etorkizuna erabakitzera, herritar antolatuon bultzadari esker ez bada.

Hain justu, horregatik, herri mugimendu honek behin ere ez du zalantzan jarri aurrera egitea, eta fase bat ixtearekin batera abiatuko du berri bat aste gutxi barru. Hilabeteotan bere buruari egin dizkion galderak dira zergatik, zertarako eta nola egin behar duen aurrera eta GEDren kideok hausnarketa parte hartzaileen bidez erantzun diegu galderei; argi eta sintonian erantzun ere.

Zergatik? Abagune politiko honetan herritarrok jokatzeko ari garen paperak zedarrituko duelako etorkizuna, hein handi batean. Haize antidemokratikoei eta atzerakoiei aurre egin eta gero eta agerigoak diren hormak eta harre-



"Martxoaren 31n ekitaldi berezi batekin abiatuko dugu etapa berria, Bilboko Euskalduna Jauregian".

JONE AMONARRIZ

"GEDren bost urteko ibilbide honek ezer erakutsi badio herri honi da bat eginda soilik lortuko dugula korapiloa askatu eta aurrera egitea, etorkizun hobe eta justuago baterantz"

siak gainditzeko ezinbestekoa da gizarte zibil aktibo eta ahaldundua. Urtez urte, gero eta jende gehiago mobilizatu da aldarrikapen honen eta kultura demokratiko berri baten alde Euskal Herrian. Esparru askotan ematen ari den ahalduntze sozial eta kolektibo erraldoiari esker, herritarrok lortu dugu erabakitzeako eskubidea normaltasuneraz ez ezik agenda politikoaren erdigunera ere ekartzea. Urrats eraginkorrak

egiteko unea da orain.

Zertarako? Euskal Herriko lurraldeetan erabakitzeako eskubidea gauzatu ahal izateko, erreferendum bidez, normaltasunez, libre eta demokratikoki, eta berme guztiekin. Horretarako jaio ginen eta helburu horri inoiz baino indar gehiagorekin helduko diogu, bost urteotan sortutako oinarriaren gainean eraikitzen hasteko.

Eta nola? Elkarrekin. GEDren bost urteko ibilbide honek ezer erakutsi badio herri honi da bat eginda soilik lortuko dugula korapiloa askatu eta aurrera egitea, etorkizun hobe eta justuago baterantz. Herritarrok jabetu gara helmugak batu egiten gaituela eta norabide berean ematen dugun pauso bakoitzeko, hurbilago gaude la jomugatik. Horregatik, argi dugu datozen hilabeteetan bi ardatz nagusiak, ahalduntze

soziala eta erabakitzeako eskubidea gauzatzearen aldeko jendarte mailako indar bilke-ta izan behar direla.

Martxoaren 31n ekitaldi berezi batekin abiatuko dugu etapa berria, Bilboko Euskalduna Jauregian. Lerro hauek irakurtzen ari zarela baliatuz, jakin Gure Esku Dagoren webgunean izena ematen baduzu, leku bat gordeko dizugula.

'Egin dezagun bidea' da ekitaldiaren leloa, eta bigarren esaldi batek eman dio zentzua izenburuari: 'Ezer ez denean ziurra, dena da posible'. Hain justu, horregatik, orain da momentua. Ametsetatik erronketara pasatzekoa, utopiei helburu deitzen hastekoa. Azken asteotan Kataluniatik eta demokraziaren aurkako epaiketarik iritsi zaizkigun duintasuneko lezioetan hamaika arrazoi gehiago pilatu zaizkigu aurrera segitzeko.

Erabakitzea ez da amets bat. Eskubide bat da. Eta eskubide hori gauzatzea posible egingo dugu. Izan ere, bere deklarazio gogoangarrian Jordi Cuixartek, Marcelino Camachoren esaldi bati erreferentzia eginez, adierazi bezala: "Grebarako eskubidea greba egiten irabazten da. Manifestaziorako eskubidea, manifestazioak eginez. Eta guk diogu erabakitzeako eskubidea bozkatzuz irabazten dela".

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Erraustegian oinarrituriko hondakinen kudeaketa plana onartu dute Batzar Nagusiek

4⁷ batzarkideetatik 26 batzarkideek babestu zuten eta 21 agertu ziren aurka, Foru Aldundiko gobernuak sustatu eta Zubietako erraustegian oinarrituriko 2019-30 urte arterako Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Plana, martxoaren 6an egin zuten osoko bilkuran. Alegia, EAJ, PSE eta PPren babesarekin behin betiko onartu zuten Batzar Nagusiek, egitasmo honen foru araua. EHBildu eta Podemoseko batzarkideak aurka agertu ziren.

EH Bildu: “Errausketan eta inposizioan oinarrituriko foru arau honen aurka bozkatu dugu”

Foru Aldundiaren hondakinen kudeaketa plan honen aurka bozkatu zuen EHBilduk. Baina ez bakarrik, “gipuzkoarren gehiengoaren iritzia eta nahiarekin” bat eginda baizik; Ahal Dugu Podemosekin, Gipuzkoako gehiengo sindikalarekin, mugimendu ekologistarekin, medikuekin eta “otsailaren 23an enegarrenez agintaldi honetan milaka pertsona kalera atera zituen mugimendu sozial eta transbertsalararekin”.

Iban Asenjo EHBilduko bozeramaileak zioenez, errausketan eta inposizioan oinarrituriko foru araua “presaka eta korrika ekarri eta onartu duzue eta hau hilda jaio da. Foru arau honek ez du inongo etorkizunik”.

Kudeaketa plan honek hondakinekin dugun gatazka konpondu ordez, areagotu egiten du Asenjoren esanetan, “jada irekia dagoen gizarte haustura are gehiago zabalduz”.

EHBilduk gogorarazi zuen, osoko zuzenketa aurkeztu ziotela foru arau honi, Europako zuzentaraua eta ekonomia zir-



Martxoaren 6ko bilkuran 2019-30 urte arterako Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Plana onartu zen Batzar Nagusietan.

BOZKETA

“EAJ, PSE eta PPren babesarekin behin betiko onartu zuten Batzar Nagusiek, egitasmo honen foru araua. EHBildu eta Podemoseko batzarkideak aurka agertu ziren”

kularra urratu eta “ingurumenaren aurka doalako”. Ez hori bakarrik. “Foru arau honek herritarrok aire garbia arnasteko dugun eskubidea ukatzen digulako, gizakion, animalien eta izaki ororen osasunaren aurka doalako”, Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak (OEIT) oroitarazi izan duen moduan.

Hondakinen kudeaketarekin dugun gatazka adostasunez konpondu ordez, “EAJ eta PSEren gobernuak inposizioa nahiago izan du. Herritarrei hitza eman ordez, eztabaida ukatu zaie eta osasuna eta akordioa landu ordez, gobernu itsu honek irabazle eta galtzaileen arteko eskemetan murgiltzea lehenetsi du”.

Podemos-Ahal Dugu: “Bideragarria ez den plan honek hurrengo legealdiak zigortuko ditu”

Parte hartze, legitimotasun eta gizartearen onarpen faltagatik hondakinen kudeaketa planaren aurka bozkatu zuen Ahal Dugu Podemosek. Bideragarria ez den plan honek “hurrengo legealdiak zigortuko ditu”. Ione Cisneros bozeramaileak EAJ eta PSE alderdien foru gobernuari gogorarazi zion, jendea oporretan zela egin zuten prozesua, ez zela parte hartzailea izan, herritar eta herri mugimendurik gabe egin baita, “ez dira kontuan hartu”. Herritarrek kontuan izan gabe eta “modu ilunean hartu ditu erabaki asko GHK-k. Parte hartzailea izatea nahi baduzue, tranparik gabe, kontsulta antolatu planari eta erraustegiari buruz”, adierazi zuen Cisnerosek.

Onarturiko planak bekatu originala duela nabarmendu zuen; Zubietako erraustegia. Tximiniarik gabeko eta kolore berdeko eraikin bat erakusteko Foru Aldundiak egunkarietako orrialdeak erostea alferrikakoa

da Cisnerosen esanetan, “denok ezagutzen baitugu erreallitatea. Gizartea oso kezkatua dago”, egitasmo honek eragingo duen kutsaduragatik, arnastuko dugun aireagatik, jendartearen osasun eta ekonomia

gatik. Horregatik, zioenez, parte hartzerik sustatu ez eta legitimotasunik ez duen plan honen aurka antolatu da gizartea aipatu batzarkidearen esanetan. GuraSOSek otsailaren 23an antolatutako manifestazioa ekarri zuen gogorra. “Milaka pertsonak modu baketsuan akordioa eskatu zuten”. Horren harira, foru gobernuari gogorarazi zionez, “kaleko ahotsak ez entzuteak bere ondorioak ditu”.

Oraindik garaiz gaudela gogorarazi zuen Cisnerosek. “Akordioetara heltzea posible da. Gizartea hori ari da eskatzen eta hori da guztiok merezi duguna”.

Podemos Ahal Dugu alderdiaren esanetan, “beti dago denbora atzerapausoa eman eta erabakiak birpentsatzeko. Akordio bat erdiestea nahi genuke”.

EAJ: "Benetan albiste ona da Gipuzkoarentzat"

"Benetan albiste ona da Gipuzkoa osoarentzat eta benetan pozten gaitu" Maria Eugenia Arrizabalaga, EAJ-ren bozeramailearen esanetan, 2030. urtera arteko hondakinen kudeaketa plana onartu izana. "Legealdiari amaiera emateko modu egokia iruditzen zaigu benetan".


Plan berriaren xehetasunak goraipatu zituen; "helburua, Gipuzkoak ekonomia zirkularrereko, prebentzioko eta klima aldaketaren aurkako borroka sustatzeko politika aktiboak bultzatzea da, arlo horretan Europak ezarritako helburuak txertatuz".

2030erako Europako %70eko birziklatze tasa bost puntutan gaindituko omen du Gipuzkoak, zabortegeak ekidingo dira. Plan honek Europako herrialde garatuenen parean jarriko omen du Gipuzkoa, Zubieta gainean eraikitzen ari diren azpiegiturak eraiki eta laster martxan jarrita. "Hainbeste urteetako eztabaida antzuarri amaiera emango dio, 45.000 etxeetarako argindarra bihurtuz", adierazi zuen Arrizabalagak.

Zubietako erraustegia martxan egongo den eguna "egun handia izango da" zioen batzarkide jeltzaleak.

Aurreko legealdiko kudeaketa kritikatu zuen. Bere esanetan, "arazo ikaragarriak ziren hondakinak gipuzkoarrentzat duela lau urte". 2015ean aurrez eginiko "lan guztia hankaz gora botata aurkitu genuen eta horren ondorio nabarmena, Gipuzkoa inolako azpiegiturarik gabe uztea izan zen". Eta gaineratu zuenez, hondakinak beste leku batzuetara garraiatu beharra izatea, "dirutza publikoak baporatu" izanarekin batera. Testuinguru honetan, lau urteotan behin behineko neurriak hartzen lan handia egin dela zioen.

Plan hau onartuta, gai honen inguruko eztabaidari amaiera



Egunotan Zubieta gainean eraikitzen ari diren erraustegiak duen itxura. Bistan denez, lanak oso aurreratuak dituzte. Herriko puntu askotatik begi bistakoa da jada aipatu planta.

emango zaiolakoan esan zuen, "20 urteetan bizi izan dugun liskar egoera paranoiko honetatik ere zerbait ikasi beharko lukete batzuk. Fanatismoa eta itxurakeria alde batera utzi eta herriaren alde elkarlanean jarduten". Suedia edota Austria adibidetzat jarrita amaitu zuen esanez, "herritar bakoitzak badugu ardura, ingurumenarekiko benetako errespetuz nola jokatu behar dugun ikasteko".

PSE: "Gipuzkoarrei emandako hitza bete du foru gobernuak"

"Gobernu hau ez da bere asmoak ezkututzen aritu. Hitza eman eta bete du", PSE-ko bozeramaile Susana Garcia Chuecak adierazi zuenez. Hondakinen kudeaketa planaren alde bozkatu zuten, "Gipuzkoarrei emandako hitza bete duelako eta 7/2008 abenduaren 23ko foru araua betetzeagatik".

Foru arau hura Gipuzkoako Batzar Nagusietan gehiengo osoz onartua izan dela gogorarazi zuen. Bere esanetan, parte hartzea bermatu da, eta 2030era arteko plan berriak

"indarrean den araudi guztia betetzen du", Gipuzkoa etorkizunera begira jartzeaz gain.

Klima aldaketaren aurka borrokatzeko aukera emango du Chuecaren esanetan, planaren jasangarritasun eta bideragarritasuna defendatzearekin batera. Zubietako azpiegiturei esker, "enplegu berdea sortzeko aukera" egongo dela esan zuen.

Egotzi zaien kudeaketa ilunaren aurrean zioenez, "gobernu hau ez da bere asmoak ezkututzen aritu". Aldiz, aurreko legealdiko kudeatzaileei araudia saihestu izana egotzi zien. Botere desbideratze argia egon zela.

PP: "Zabortegeien kultura desagertzen da"

EAJ eta PSE-ren foru gobernuarekin bat egin eta 2019-30 urte arterako Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Planaren alde bozkatu zuen PP-k. Joan den astean onarturiko hondakinen kudeaketa planak aurrekoari "jarraipena eman eta modernizatzen du" Juan Carlos Cano bozeramailearen esanetan. "Zabortegeia-

ren kultura desagertzen da" eta horrekin batera, legealdi honetan Gipuzkoak izan ez duen autonomia izango du aurrerantzean, hondakinen kudeaketaren gaiari dago-kionean. "Autonomia hau kudeaketa publiko integrala izatea nahiko nuke, ez da posible izan", Canoren esanetan, aurreko legealdiko kudeaketa-gatik.

Bere ustez, Gipuzkoak 2030erako finkatua duen %70eko birziklatze tasara lehenago helduko da. Martxoaren 6an Batzar Nagusiek gehiengo osoz onarturiko planak Europako hondakinen hierarkia errespetatzen du eta plan hau "legealdi hasieran izan ez eta aspaldi martxan jarriak behar zuten azpiegiturekin osatuko da".

Bere ustez "konfrontazio politiko interesatua" desagertzeko unea heldu da, erraustegia bai edo ez eztabaida atzean uztekoa, baina "gutxienez hurrengo hauteskundeak igaro arte hala gertatuko den itxaropenik ez dut". Hurrengo legealdiako hau guztia gainditzea espero du. "Akordio gehiago izatea".

Erraustegia klima aldaketaren sinonimo “lotsagarria” dela salatu dute

Erraustetaren aurkako oihu eta txistu artean hartu zuten martxoaren 6an Donostiako Kursaal Jau-regiaren atarian, barruan ospatzen hasi ziren “Change the Change” klima aldaketaren aurkako nazioarteko biltzarra. Bezperan hiriburuko udalaren atarian egin bezala, Erraustetaren Aurkako Mugimenduak mobilizazio jendetsua egin zuen Kursaal atarian.

Pankartako aldarriak zioen moduan, erraustegia klima aldaketaren sinonimo dela gogorarazi zuten, hizki larritz nabarmendua zuten moduan, sinonimo lotsagarria. Mezua, barruan ziren agintariei gogorarazi zieten. Tartean, Zubietan eraikitzen ari diren erraustegia sustatzen ari direnei. Biltzarra, Donostiako Udalak, Foru Aldundiak, Jauriaritzak eta Espainiako Gobernuak antolatu baitzuten.



Aurreko astean “Change the Change” klima aldaketaren aurkako nazioarteko biltzarra ospatu zen Donostian. Martxoaren 6an elkarretaratzea egin zen Donostiako Kursaal parean, Erraustetaren Aurkako Mugimenduak deituta.

DEITZAILEAK

“Ez utzi EAE, Gipuzkoa eta Donostiako agintariak ‘green-washing’ merkea egiten. Exijitu klimaren aldaketa okerragotzen duten proiektuak baztertzea”

Porlan lantegia eta erraustegia

Kursaalera bertaratu zirenei informazio eskuorriak banatzen aritu ziren. Biltzar honetara datozenei eskaera argia luzatu zien Erraustetaren Aurkako Mugimenduak.

“Ez utzi EAE, Gipuzkoa eta Donostiako agintariak ‘green-washing’ merkea egi-

ten, eskatu benetako konpromisoa herritarren eta Lurra planetaren etorkizunarekin, exijitu klimaren aldaketa okerragotzen duten proiektuak baztertzea”. Tartean, Donostiako lurretako bi proiektu: Añorgako Rezola porlan lantegia eta Zubietan eraikitzen ari diren erraustegia.

Erraustegiek eragindako minbizi kasuen gorakada argia, OEIT-k kaleraturiko azterlanetan

Osasuna eta Errausteta Ikerketa Taldeak (OEIT) erraustegiek gu guztion osasunean duten eragina agerian uzten duten nazioarteko hainbat adituren azterlanak argitaratzen segitzen du sare sozialen bidez. Datu kezkarriak zailantza izpirik gabe.

Ingalaterrako “Spatial analysis of health effects of large industrial incinerators in England, 1998-2008: a study using matched case-control areas” azterlanaren arabera, “erraustegiaren inguruko 10 kilometroko erradio batean leuzemien gehikuntza bat atzematen da”.



“Erraustegiaren inguruko 10 kilometroko erradio batean leuzemien gehikuntza bat atzematen da”.

Italiako 2010eko “Cancer incidence in people with residential exposure to a municipal waste incinerator: an ecological study in Modena (Italy), 1991-2005 azterlanean, “erraustegiaren inguruko 3,5

kilometroko erradio batean leuzemien %28-35eko gehikuntza aurkitzen dute”.

2012ko Espainiako beste ikerlan bat; “Cancer mortality in towns in the vicinity of incinerators and installations

for the recovery or disposal of hazardous waste” izenekoa. Kasu honetan, “kutsadura-iturri ezberdinek minbiziak eragindako hilkortasunean duten eragina aztertzen da, iturri bakoitzari dagozkion datu espezifikoak agertzeko beharrezko doikuntzak egin ondoren. Hondakinen erraustetari dagokionez minbiziak eragindako hilkortasuna %9 igotzen da, emakumeengan urdaileko minbiziak eragindakoa %38 eta behazun-xixkuarenak eragindakoa %43 igotzen dira hurrenez-hurren eta gizonezkoetan pleurak eragindakoa %98 igotzen da”.

Usurbildarrak ere **berria** lagun

Ni euskarazko prentsaren alde
Eta zu?



Paulino Ibargoin

Egin zure ekarpena:

Hilean 10 € / urtean 100 €

Eta eskuratu ABANTAILAK:

- BERRIA PDFn
- Zerbitzu berezietarako sarrera
- Zozketa, gonbidapen eta deskontu eskusiboak

NOLA EGIN BERRIALAGUN

• **Laster jasoko duzu gure deia:**

Erosi Usurbilen BERRIAren eskutik

kanpainan parte hartu bazenuen, eskaintzaren berri emateko deituko dizugu.

• **Aurre hartu eta egin zaitez gaur BERRIALAGUN:**

Sartu Berria.eus/berrialagunausurbil webgunean edo deitu **943-30 43 45** telefonora.

berria·mundua·euskarari·emana

MARTXOAK 24, IGANDEA

Laburbira

MARTXOAK 24
19:00 SUTEGIN



BEGININEN KOREOGRAFIA
Aurrite Fernandez



SHELL PHONE
Miren Mujika



ZAPATAK
Irati Murua



AMA
Joni Martinez



JUNE
Aranza Ibarra



HOTZEAN GARBITU
Makili Barrenetxe eta Marija Tejada



ILUNPEAN
Iker Muguruza eta Andreea Martinez



ERROAK
Ane Zubeldi



HANDIAK ETA TXIKIAK
Lalida Ruiz



noqua



Aprobaketa: Eusko Legebiltzarrak

Bilera ireki gehiago ate joka

Hainbat bilera ireki edo parte hartze saio iragarri dira Potxoenean da-tozen egunetarako.

21. Korrika girotzeko lanetan dabilen herritar batzordeak bilera deitu du ostiral honetarako.

Beste bi hitzordu begibistan: batetik, Euskaraldia sustatzeko talde eragileak deitu duena, 11 eguneko ariketa kolektiboaren ondorena aztertzeko.

Bestetik, etorkizunean Ugartondon kokatuko den belau-naldi arteko etxebizitza komu-nitaria diseinatzeko jarraitzeko parte hartze saio berria iragarri du Udalak; "Bizikidetza" izango da jorratuko duten gaia.

Bilera ireki hauei, Jai Batzor-deak antolatutako batu behar da. Adi, ekitaldien aurrekontuak hilaren 15a baino lehen aurkez-tu beharko dituzte. Azkenik aipatzekoa, greba feministaren balantzea egiteko bilera irekia.



Korrika Batzordea ostiral honetan batuko da Etumeta AEK euskaltegian.

Datozen bilera irekiak

Martxoak 15, ostirala

■ 17:30 Korrika Batzordearen bilera irekia euskaltegian.

Martxoak 20, asteazkena

■ 18:00 Euskaraldiari lotu-tako bilera irekia Potxoenean.

Martxoak 21, osteguna

■ 18:30 Greba feministaren ba-

lorazio bilera irekia Potxoenean.

Martxoak 23, larunbata

■ 10:30-12:30 Ugartondoko Txi-rikorda proiektua definitzeko saioa Potxoenean: "Bizikidetza".

Martxoak 25, astelehena

■ 18:00 Usurbilgo Jai Batzor-dearen bilera Potxoenean.

Badator Laburbira

Euskarazko film laburren emanaldia bueltan datorki-gu Usurbila, urtero moduan NOAUA! Kultur Elkartearen eskutik. Martxoaren 24an, 19:30erako antolatu dugu proiektzioa Sutegin. Sarre-ra doan. Aurten, 2016-2018 urte artean ekoiztutako 9 film eskainiko dira:

- Begi ninien koreografia (10'30"), Arrate Fernandez Itsaso.
- Shell phone (9'42"), Miren Mujika.
- Ama (7'20"), Josu Martinez.
- Zapatak (3'00"), Irati Murua.
- June (7'33"), Arantza Ibarra.
- Ilunpean (3'09"), Lapatz films.
- Hotzean garbitu (14'), Ma-ddi Barrenetxea-Marta Teijeira.
- Erroak (8'39"), Ane Zuazu-biskar Iñarra.
- Handiak eta txikiak (1'36"), Laida Ruiz.

Herri Batzarra

- 1) Zerrendaren aurkezpena eta berrespena
- 2) Herri-programako proiektu izarren aurkezpena

Matxoak 22
Potxoenean
18:30

Gogoratu hauteskunde prozesuan parte hartzeko izena eman behar dela honako helbidean:
elkarrekin.ehbildu.eus/register

ehbildu Usurbil

@EhbilduUsurbil
@ehbildu_usurbil
Ehbildu Usurbil
ehbildusurbil@gmail.com



Emakumeen planto historikoa



Martxoaren 8ko greba feminista historikoko talde argazkia. Aurrekaririk ez duen Usurbilgo emakumeen irudia.

Aurrekaririk ez duen mobilizazio eta greba eguna bizi izan genuen Martxoaren 8an. Ehunka emakumeek planto egin zuten Usurbilen, planto historikoa. Inoiz ezagutu den emakumeen aldarrikapen eta protesta egun jendetsu eta anitzena bizi izan genuen.

Emakume gazte eta helduak, alabak, amak, amonak, ikasleak, langileak, langabetuak, pentsiodunak... goizean goizetik elkarrekin plazan, manifestatzen, hausnartzen, emakumeak elkar ezagutzen, sortzen, dantzan...

“Zorionak! Historia egiten ari gara!”, zioten antolatzaileek goizeko bi mobilizazioen ostean. Kalejira zaratsua egin zuten lehenik herrian barrena, eguerdian manifestazioa. Bi hitzorduak historiako; emakumeek deitu eta emakumeen eskubide, aldarri eta elkartasunez bete zituzten kaleak.

Tartean, greba feministako bost ardatzen inguruan hausnartzeko parada izan zuten frontoian. “Grega bizitzako eremu guztietan kokatu dugu, lanaren kontzeptua eraldatzeko. Enplegutik haratago da-

MARTXOAREN 8KO GREBA FEMINISTA

“Ehunka emakumeek planto egin zuten Usurbilen, planto historikoa”

goena lana delako, horretarako bost ardatz eraiki ditugu; ikasleak, enplegua, pentsiodunak, kontsumoa eta zaintza. Ardatz horiek lantzeko bertaratu garen esperientzietatik abiatuko gara. Horretarako espazioa sortu nahi dugu”, adierazi zuten Martxoaren 8ko greba feministako antolatzaileek.

Kaleak eta plaza hartzea zen, aurreko asteetan emakume talde batek josi zuen egitarauaren helburua. Eguneroko lanen aurrean planto egin eta plaza publikoa okupatzea. Besteak beste, sormena partekatzeke. Martxoaren 8an, elkarrekin frontoian bazkaldu ostean, mikrono irekia jarri zuten, nahi zuen emakume orok abestu, errexitatu edo bertsoak botatzeko.

Dantza batean ikusi genituen segidan, eta eguna boro-biltzeko, Donostiako ilutnzeko manifestaziora joan aurretik akelarre ikusgarria plazaratu zuten.

Haurren zaintza gunea

Bizitza eta zaintza lanak ekarri nahi zituzten heteropatriarkatu kapitalistari planto egiteko Martxoaren 8rako deitua zegoen greba feministaren erdigunera. Gizonezkoei mobilizatu ordeztu, zaintza lanez arduratzeko deia egina zegoen. Askatasuna plazan, haur eta gizonezko talde bat ikusi genuen, jolasean eta dantzan.

Azken oharra: Bilgune Feministaren zozketako zenbaki saritua 5.403 izan da. “Sari-tuak Errigorako saski zuri eta beltz bat jasoko du!”. Horretarako idatzi hona: bulegoa@bilgunefeminista.eus

Balorazio bilera irekia martxoaren 21ean

Martxoaren 8an bizitakoaren balantzea egiteko ordua da. Joan den ostiraleko ekimenak antolatzen aritu den emakume taldeak balorazio bilera irekia deitu du martxoaren 21erako. “Zorionak Usurbil! Sekulakoa izan zen martxoaren 8a! Hori dela eta, *balorazio bilera irekirako* gonbita luzatzen di-

zugu. Egun hori antolatzen aritu ginenok, egunean parte hartu genuenok eta bertaratu ezin izan genuenok, guzti-guztiekin dugu lekua eta zeresana bilera horretan. Beraz, erantzi lotsak eta gerturatu!”.

Martxoak 16 larunbata

10:00-14:00 / 15:30-19:30 Autodefentsa feminista ikastaroa

Potxoenean, Maitena Monroyekin. Izen ematea aurrez bideotatik: Parekidetsaun Sailaren egoitza, 943 377 110, parekidetasuna@usurbil.eus Antolatzailea: Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Saila.

Martxoak 21, osteguna

18:30 M8ko greba baloratzeko bilera irekia Potxoenean.

Kabiene Elkarlan Gunea, parekidetasunerantz hazten

Kabia hazten doa, ondoko elkarriketan jabetuko zaretenez. Kide berriak ditu Kabiene elkarlan guneak. Emakumezkoak gehienak, lankideen artean parekidetasuna sustatzeko egin duten apustuaren baitan. Kabiene kide berriotako hiru emakumerekin elkartu da NOAUA!: Danele Sarriugarte itzultzaile, kazetari eta idazlearekin; Maitane Zuriarrain barne diseinatzailearekin eta Ainara Azpiaz Aduriz "Axi" ilustratzaile eta komikigilearekin.

NOAUA! Nola gurutzatu da Kabiene zuen bizitzetan?

Ainara Azpiaz. Etxetik kanpo lan egitea komenigarria izango zitzaidala pentsatzen urteak neramatzan. Facebook bidez izan nuen Kabieneren berri. Bisitan etorri nintzen. **Maitane Zuriarrain.** Herritarra izanda, Kabieneren berri baren. Etxean lan egiteak bere zailtasuna zuen, etxearen, lanaren eta bizitza sozialaren denborak ez nituelako bereizten. Kabieneren Hasiz Hazi beka deialdia azken egunetan zen eta proiektua aurkeztea erabaki nuen. **Danele Sarriugarte.** Denbora neraman etxean lan egiten. Mezu bidez jaso nuen Kabieneren berri, eta hona etorri nintzen.

Etxetik kanpo, lantoki fisiko bat izateak zer ekarri du zuentzat?

M.Z. Orden bat, lanaren eta bizitza pertsonalaren arteko mugak bereiztea. Eta oso arlo ezberdinetako profesionalak egonda, interes komunak nola sortzen diren jabetzen zara. Elkarri zalantzak argitzen dizkiogu, oso aberasgarria da.

A.A. Denborak eta espazioak



Kabiene kide berriak. Ezkerretik eskuinera; Maitane Zuriarrain, Ainara Azpiaz eta Danele Sarriugarte.

MAITANE ZURIARRAIN, Kabiene kide berria:

“Etxean lan egiteak bere zailtasuna zuen, etxearen, lanaren eta bizitza sozialaren arteko denborak ez nituelako bereizten”

antolatzea eta egiten duguna partekatzeko sare bat izatea. 10 urte neramatzan bakarrik eta beti etxean, ordu gehiegi dira.

Ogibide ezberdinen arteko elkar laguntza sarea bada hemen?

A.A. Denok gara autonomoak. Antzeko zailtasunak bizi ditugu. Orain arte planteatu gabeko lotura berriak sortzen laguntzen du.

Denbora kudeatzen sortzaile apartak izango zarete honez gero?

A.A. Horretan oraindik asko ikasteko dudala sentitzen dut.

Agian zailena hori da.

D.S. Ez zaude besteen agindutara baina bete beharreko epe batzuk dituzu eta horretarako zuk antolatu behar duzu zure bizitza. Batzuetan zenbat eta muga gutxiago denborak ere askoz errazago ihes egiten dit. Halere niri espazioak horretan nabarmen lagundu dit.

Egun zer proiektu dituzue esku artean?

M.Z. Hendaia eta Zarauzko bi etxebizitzetako berrikuntza lanetan nabil. Orioko jatetxe baten berritze lanetan ere bai. **A.A.** Irrien Lagunentzako kolaborazio bat amaitzen ari naiz oraintxe. Eta Alaine Agirreren eta Iñaki Sanzek idatzitako liburuen ilustrazio lanekin nabil.

D.S. Ni ere ohiko lanekin nabil. Argia aldizkariarekin kolaboratzen dut batez ere kultura eta jendeak izeneko ataletan. Gero itzulpenak egiten ditut. Orain itzulpen luze batzuk ditut eta horiekin nabil. Tarteka beste gauza batzuk ateratzen dira.

Parekidetasuna sustatzeko apustua

Kabieneren lan taldeak aldatuta nabarmena eman du azken aldian. Kide kopuruan gorantz egin du, baina gorantz egin ahala aurrera egin du baita parekidetasunerantz. “Denboraldi bat egon zen, emakume bat eta bost mutil zeudela”, oroitarazi dio Maitane Zuriarrainek NOAUA!ri. Ordutik, hamaika ahalegin egin dituzte kide emakumezko gehiago erakartzeko. Eta ahaleginak bere emaitza izan du. Usurbilgo elkarlan guneak egun 15 kide ditu, 7 emakumezko eta 8 gizonezko. Lerrootan elkarriketatu ditugun hiru Kabiene kideekin batera, bertan bere ibilbide profesionala garatzen ari dira Yolanda Arrieta idazlea eta Aroa Etxeburua psikologoa. Maitanerekin batera, Aroa urtebeterako Hasiz Hazi deialdiko beka duna da baita.

“Beste langileek dituztenak baino askoz eskubide murrizagoak ditugu”

NOAUA! Zein da emakume autonomoen errealitatea? Ainara Azpiazu. Urteak aurrea egin ahala, bizitza pertsonala planifikatzeko garaian zenbat eragiten duen konturatu naiz eta niretzat oraindik gogorra da. Soldatapean aritu eta langabezia kobratu dezakezu, guk hori ez dugu. Gure bajak oso baxuak dira, amatasun bajak bezala. Beste langileek dituztenak baino askoz eskubide murrizagoak ditugu. Eta hori oso gogorra egiten zait oraindik ere. Kuota oso altua dela iruditzen zait, ia 300 euro ordaintzen ditugu hilero. Legalki nahiko babesik gaudela iruditzen zait. Baditu bere alderdi onak; zure lan orduak antolatzeak aukera duzu, inork ez dizu esaten zer egin behar duzun eta zure irizpide propioak jar ditzakezu zure lanean.

Sortzaileon kasuan oso ohikoa ezta?
D.S. Autonomia izatea erabaki dudana sentsaziorik ez dut izan. 4 urte daramatzat, nekeza egiten zait, baina pozik samar nabil oraindik. Ez dut sekula hausnartu autonomia eta emakumea izatearen gaiaz. Baina zentzu horretan bat nator, martxoaren 8ko mugimendu feministak egin zuen deialdiarekin. Egiturazko baldintza batzuk daudela uste dut eta heziketa bidez barneraturikoak, eta horrek eragiten du. Soldatapean egongo banintz eragingo lidake agian beste modu batera, eta autonomo izanda eragiten dit tarifak adosteko orduan. Ez dut esaten hori bakarrik emakumeoi gertatzen zaigunik, baina irudikatzen dut badagoela loturaren bat. Ez dakit autonomoen tasak generoaren arabera zelan



Gustura dira Kabiene, Maitane Zuriarrain, Ainara Azpiazu eta Danele Sarriugarte. Jarraitzeko gogotsu.

MARTXOAREN 8AZ **“Gelditzeko egun bat iruditzen zait, sekulako pisua daramagulako emakumeok eta hori ikusarazi behar delako”**

banatuak egongo diren, baina interesgarria izango da ikustea datu horiek nola dauden. Eragingo dutela irudikatzen dut.

Martxoaren 8ko greba deialdiaren bueltan nola kokatzen duzue zuen burua?
A.A. Baldintza horiengatik ere ezinbestekoa iruditzen zait, mila arrazoiengatik. Egun horretan gelditzeko egun bat iruditzen zait, sekulako pisua daramagulako emakumeok eta hori nolabait ikusarazi behar delako.
D.S. Gustatuko litzaidake hitz egitea beste emakume autonomoekin, ia zeintzuk diren beraien oztopo nagusiak.
A.A. Batzuetan ez duzu planteatu etxe bat ez ote duzun erosi autonomia zarelako? Edo ez naiz izan ama lehena? Autonomia naizelako? Denborarekin planteatzen ari naiz gauza batzuk, hautu pertsonaletan uste baino era-

gin handiagoa izan dutenak.
M.Z. Ama oso gazte, 24 urtekin izan nintzen, autonomia nintzela. Autonomia eta ama izan eta gero etorri ziren ondorioak, nola egin aurrera. Egin zen halere.
D.S. Esperientzia horiek partekatzea interesgarria litzateke, beste batzuk nola egin duten jakiteko.

Aurrera begira, Kabiene ze ibilbide jorratu asmo duzue?
M.Z. Ez dut beste batentzat lan egitera bueltatzeko asmorik. Gainerakoan, Kabiene segi eta ze proiektuekin ikusiko da.
A.A. Hemen segitzeko asmoa dut, oraingoz oso gustura nago. Ikusten naiz hemen denbora majo batean. Lanari dagokionez, lanarik bilatzea nahi nuke eta ez lanek ni. Betiko erronkak dira. Oso gustura nago.
D.S. Oso gustura nago eta jarraitzeko asmoarekin. 4 urte daramatzat autonomo moduan eta uste dut beti izan dela borroka, denbora hobeto kudeatzea. Gauza batzuetan hobetu da nire lan bizitza eta bizitza pertsonalaren arteko oreka. Ia Kabiene laguntzen didan horretan.

Bi urteko ibilbide emankorra

Zure kontutik lan egiten baduzu, interesgarria izango zaizu Kabiene elkarlan gunearen eskaintza. Lanerako mahaia, bilera gelak, Internetarako konektioa, bulegoko materiala... Finean espazio bat, lerroetan elkarriketatu ditugun hiru lagunek zioten moduan, bizitza pertsonala eta profesionala bereizteko, beste profesionalen laneko esperientzietatik elkar abarasteko eta norberak egiten duen lanak ere kide gehiagorekin partekatzeak. 2016an sortu zuten elkarlan guneak jada bi urte pasatxoko ibilbide emankorra izan du eta aurrera begirako bideari ere, bistan denez, ibilbide oparoa dario.

Informazio gehiagorako...

Kabiene ezagutu edo zure lan proiektua bertan garatzeko interesa baldin baduzu, informazio edo argibide gehiago jasotzeko bideok dituzu. Telefonoz nahiz web bidez hartuemanetan jar zaitzke elkarlan gunearekin: 943 55 96 75 / kabiene.com

Ilazki Gainza: “Emakumeen ekarpenak isilaraziak izan dira”

Urbilen egin zituen hainbat urte. Ordukoak dira NOAUA!n plazaratu zituen iritzi artikulak. Kalaka kooperatiban ari da lanean orain eta Nerea Uriarekin batera *Emariak* izeneko liburua plazaratu du. Historian zehar ekarpen handiak egin dituzten emakumeen inguruko biografia-bilduma.

NOAUA! Emariak, emakumeek historian zehar egin dituzten ekarpenen bilduma plazaratu berri duzue. Nondik eta nola sortu zitzaizuen liburu hau plazaratzeko ideia?

Ilazki Gainza. Gure aletxoaren nahi izan dugu, gure txikitakunetarik. Kalaka bi ekintzailek osaturiko kooperatiba bat da, eta ekintzaile bezala ez dugu emakumezko erreferenterik izan. Ekintzailetzan agertzen diren erreferenteak ere gizonetzkoak baitira.

Formakuntza saioak eskaintzen ditugu eta alor horretan ere sumatu dugu falta hori. *Emariak* fitxa bidezko lan bat bezala planteatu genuen hasiera batean, eskoletan lantzeko. Baina ezinezkoa egin zaigu eskolekin elkarlan moduko bat bideratzea eta fitxena baztertu eta liburu gisa plazaratu dugu *Emariak*. Baliabide gisa, etxetara zein ikastetxeera iritsi ahal izateko.

Erreferenteen zerrenda bat egiten hasiko bagina, gizonetzkoen izenak berehala etorriko litzaizkiguke. Emakumeen zerrenda osatzeko orde, lanak izango genituzke. Liburuan antzeko hausnarketa egin duzue.

Gizonetzkoen ekarpenen berri badugu. Ondo dago hori. Gure jakinduriaren parte da. Baina emakumezkoak ere hori egon dira, historian zehar arlo ezberdinetan lanean, eta horien



Emariak izeneko liburua plazaratu du Nerea Uriarekin batera.

ILAZKI GAINZA

“Emakumeak arlo guztietan aritu dira lanean, gizonetzkoak bezain beste, baina ez zaigu horren berri eman. Historiaren erdia bakarrik kontatu zaigu, garaileena. Gizonena. Boterea izan dutenena”

berri ez zaigu eman. Isilaraziak izan direlako edota euren lanak gizonetzkoen izenean sinatuta iritsi zaizkigulako. Gure liburuan emakume asko falta dira baina lan honen bitartez gehiago ikertzeko gogo piztuarazi nahi diogu irakurleari. Sarean bada informazio ugari gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntzetan, baina euskaraz ez dugu topatu halakorik, eta horregatik plazaratu dugu biografia-bilduma hau.

Bitxia da. Zuen lan tresna propioak sortu behar izan dituzue. Hala da. Baliabide gisa sortu dugu eta eskoletara iristeko modua izan daitekeela uste dugu. Harrera ona izaten ari da. Interesa piztu du eta askok begiak zabaltzen dituzte. Gauza asko ezezagunak zaizkigula konturatu direlako. Orain, liburuan ditugu eskura.

Bertakoak eta nazioartekoak. Garaikideak eta aspaldikoak. Anitza da egin duzuen aukeraketa.

